

ZIMBAWE. Herrialdean zehar ezarritako 4.500 hautes-bulegoetara multzo handian hurbildu dira boto emaileak

Erredakzioa | DONOSTIA

Kanpaina denboran egondako bortizkeria giroak ez zituen botoa ematek atzerarazi 5,6 milioi zimbawetar hautesleak, zeren eta, oso parte-hartze handia nabaritu baitzen atzo, lehendakartzarako hauteskundeetan lehen egunean. Milaka eta milaka herritarrek ilara luzeak egin zituzten herrian zehar banatutako 4.500 hautes-bulegoen aurrean, batez ere, Harare hiriburu-eremuan. Nabari denez, zimbawetarrek ohartu dira bozketaren parte hartzeak garrantzia handia izan dezakeela eta 1980. urtean Zimbawek bere burujabetasuna lortu zuenetik lehendakari kargutik egon den Robert Mugabek beharbada agintea gal dezakeela.


Bozketak hauek gaur jarraitzeak eta amaitzeak dira baina atzoko parte-hartze handia ikusi eta gero, oposizioaren hautagai Morgan Tsvangirai adierazi zuen bozkaldiaren epea luzatzeko eskaria egingo duela, botoa eman nahi duten hautesle guztiek hori egiteko ahala izan dezaten. «Ezinezkoa da dena trenkatzea bi egunez bakarrik» adierazi zuen atzo MDC Aldaketa Demokratikoko Mugimenduaren buruzagia.

Tsvangirai eta bere jarraitzaileak, gainerat, Robert Mugabe jarduneko presidentearen agintari jukutiaz jokatzea egotzi zioten. «Ahalegin guztiak egiten ari da Mugabe, bere aurka bota zezakeen hautesleak ez dezaten bozik eman» zehaztu zuen Tsvangirai. Esaterako, MDCKo hautagaiak azpimarratu zuen gobernuak 80 hautes-bulego kendu dituela hiriburuan, nahiz eta, Harareko biztanleria ugalduta egin den 2000. urtean egin ziren Legebiltzarrerako hauteskundeetaz geroztik. Eta MDC garaile irten zen orduan hautes-barruti haietan.

Atzoko boto eguna Armadaren zaintzape zorroztzean igaroz, gatazkak eragozteko aitzakiarekin. Hala eta guztiz ere, lis-

Lehendakartzarako bozen lehen egunean parte-hartze oso handia nabaritu da

Morgan Tsvangirai oposizioak hautagaiak bozketak gaurtik harat luzatzeko eskatu du, hautesle orok izan dezaten boto egiteko ahala



YOAV LEMMER / EPA

Zimbaweko haur bat Harareko Mbare auzoan, atzo, bozkatzeko zain zegoen jendeari etxetik begira.

kar batzuk gertatu ziren, oso bortitza izan den hauteskunde kanpaina baten ildoari jarraiki. Gutxienez 12 lagun zaurituta geratu ziren Harare inguruko Kuwadzana hautes-bulegoaren inguruan, Poliziak gomazko pilotak jaurti eta kautxuzko balekin tiro egin zuen elkarrekin. Egoitza barrurat bultzatuta sartu nahi izan zen hautesle andana baten kontra.

Nazioarteko begiraleak, oso gutxi

Lekuko batzuek jakiterat eman dutenez, Poliziak oso bortizki jo zuen botoa eman nahi zute-

ERASOEN EGILEAK

Oposizioak salatu du Mugaberen jarraitzaileek 30 begiraleri eraso dietela Shamvako hautes-bulego batean

nen aurka, azote kolpeka jokatuta. MDCK salatu zuen, aldiz, berak izendatutako 30 begiralek eraso jasan zutela Shamva herrian. Makilak eta beirazko botila hautsiak eskuetan zeuzkaten eraso egileak Muga-

beren ZANU-PF alderdikoak zirela ziurtatu zuten MDCKoek.

Mugaberen aginteak ahaleginak oro egin dituen arren nazioarte hautemailerik ez dadin egon bozketaren hauetan, Norvegiako 25 begiresle baziren atzo Zimbaweko zenbait hautes-bulegotan. Hauen buru Kare Vollen pozik azaldu zen zimbawetarren parte hartze handiaz baina arazo zenbaiten berri eman ziotela azpimarratu zuen. Europako Batasunak, berri, begireslerik ez zuen, Pierre Schori hauen burua kanporatzearen kontra protesta egiteko gisan.

KRONOLOGIA

Bi hamarkada gorabeheratsu

Hona hemen Zimbawen azken 20 urteotan izaniko gertaera aipagarrienak:

1980KO APIRILAK 18. Herrialdearen independentzia. Ian Smithen erregimen arrazistaren aurkako gerran 27.000 lagun hil ziren 1972 eta 1979 bitartean. Mugabek bozak irabazi zituen eta lehen ministro aukeratu zuten.

1987KO ABENDUA. Mugabe estatuburu, Konstituzioa aldatu eta Zimbawen erregimen presidentzialista bihurtuta.

1989KO ABENDUA. Marxismoa baztertu eta merkatu ekonomia jo zuen ZANU-PFk.

1992KO MARTXOA. Lurren erreforma hasi zen, zurien esku zeuden lurren erdiak nazionalizatzeko.

1996KO MARTXOA. Mugabe berriro presidente, botoen %92,7rekin. Oposizioak iruzurra salatu zuen.

1999KO IRAILA. MDC Aldaketa Demokratikoko Mugimendua alderdia sortu zen.

2000KO OTSAILA. Estatuburuaren boterea handitu eta lurra indemnitazio barik desjabetzeko erreforma baztertu zuten herritarrek erreferendumean. Zurien lurra okupatzen hasi ziren gerra beteranoak.

2000KO EKAINA. 120etatik 57 eserleku lortu zituen MDCK Legebiltzarrerako bozetan.

2002KO URTARRILA. Legebiltzarrak boto eskubidea eta prentsa askatasuna murrizteko legeak onartu zituen.

aurrerapen
medikoak, s.a.psikiatria
zerbitzua

AMSA

Afektibitate arazoak • Elikadura arazoak

Alkoholismoa • Psikosi larriak • Psikogeriatría


SARTZE PSIKIATRIKOAK (I.M.Q.) (AEGON)

LARRIALDIAK GAU ETA EGUN

Guimón Klinika:
Manuel Allende K/ , 24 - 5. solairua94 444 70 71
48010 BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkaria

gogoa



Itzulpena

• Alfred Tarski: *Egiaren kontzepzio semantikoa eta semantikaren oinarriak*

Zabal-zehatz begiratz

• Kepa Korta: *Begiratu zabala gaur egungo pragmatikari*

Artikuluak

José Ignacio Pérez eta Maite Garaigordobil: *Arte-programa baten eragina sormen grafikoa, hitzezkoan, mugimenduzkoan eta soinu-musikarenean*
Sagrario Yáñez: *Atxikimendua, emozioak eta hizkuntza*
Isabel Gómez Txurruka: *Juntadura eta egibaldintzak*

Liburuen kritikak

Aurkezpen laburrak

Berriak

Kongresu, jardunaldi eta ikastaroak

Harpidetzararako hau da telefonoa: 94-601 2226

e-maila: luxedito@lg.ehu.es

ALE
BERRIA